



EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“EUSKAL BILDOTSA – CORDERO LECHAL DEL PAIS VASCO”
MARKAREN ARAUTEGIA



5 (e)tik 1. orria

EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“EUSKAL BILDOTSA – CORDERO LECHAL DEL PAIS VASCO”
MARKAREN ARAUTEGIA

I. ATALA- OROKORTASUNAK

1. Artikulua- Eusko Labela duen “Euskal Bildotsa” kalitate ziurtagiria, arautegi honetan ezartzen diren baldintzak bete eta Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitzi, hil eta zatitutako bildotsen kanalei eta zatiei ematen zaie. Beraz, eta abenduaren 7ko 17/2001 legean ezarritakoaren arabera, ezin izango da “Euskal Bildotsa” marka erabili beste produktu batzuetan, beste jatorri batekoak direnetan, Arautegi honetan jasotakoa izan ezean. Ezingo dira ere erabili ez izen, ezta espresio, marka edo bereizgarri, babestutakoen antzekoak direnak grafikoki edo fonetikoki eta Arautegi honetan baimendutakoekin nahasmena sor dezaketanak.

2. Artikulua- Fundacion Kalitatea Fundazioari dagokio “Euskal Bildotsa” markaren defentsa egitea, bere Arautegia aplikatzea, betetzen dela ziurtatzea, eta produktua sustatzea eta kalitatearen kontrola egitea.

II. ATALA- PRODUKTUAREN DEFINIZIOA.

3. Artikulua.- “Euskal Bildotsa” markaren babesa jasotzen duten bildotsak Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak izan behar dira, bertan hil eta despiezatutakoak. Halaber, bertoko arrazakoak izatea ezinbestekoa da: Latxa edo Karrantzar arrazakoak eta euren nahasketak.

4. Artikulua.- Bildotsak hiltzerakoan 21 eta 35 egun artean izan behar dute.

5. Artikulua.- Bildotsaren kanalak baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Aurkezpena: buru, errai eta epiploiarekin.
- b) Kategoria: Estra eta 1.mailakoa, Indarrean dagoen Kalitate Arauaren arabera.
- c) Pisua kanalean: 5 eta 8 kilo artean buru eta erraiekin.
- d) Profila: zuzena, joera subkonkaborarekin pittin bat.
- e) Kanpoko koipea: estensoa, uniforme, ondo osatuta eta zuria.
- f) Barruko koipea: gibelaren erdia estalita gutxienez eta asko jota, gibelaren lau bostenak.
- g) Haragiaren kolorea: nakar-zuri koloretik arrosa argira.
- h) Haragiaren trinkotasuna eta hezetasuna: pittin bat hezea
- i) Haragiaren ezaugarriak: samurra, mamitsua eta testura suabea.

III. ATALA.- EKOIZPENA.

6. Artikulua.- Animaliak banaka identifikatuta egon behar dira ezartzen diren baldintzen arabera.

7. Artikulua.- Bildotsak amaren esne naturalarekin elikatu behar dira.

IV. ATALA,- GARRAIOA ETA HILTZEA.

8. Artikulua.- Ibilgailuak garbitu eta desinfektatu egin behar dira partiden artean, eta edozelan ere, lanaldiaren amaieran.

9. Artikulua.- Hiltegiara heltzen direnean animaliak kontu handiz deskargatu eta ukuiluratu behar dira, kolpe eta zauriak ekiditeko, eta estresik ez sorrarazteko. Fundacion Kalitatea Fundazioak ezarri ahal izango du bildotsek ukuiluan eman behar duten gutxieneko eta gehiengo denbora zein izan behar den.

10. Artikulua.- Hiltegiak honako baldintzak bete behar dituzte:

- a) EAEn kokatuta egotea.
- b) Fundacion Kalitatea Fundazioak zehaztutako erregistro sistema eramatea, prozesu osoan zehar produktuaren trazagarritasuna ziurtatuz.
- c) Aurkezten diren bildots guztiak baimenduta dauden ustiategietakoak direla ziurtatzea.
- d) Hiltze eta maneiatze lanak egin, kanalak, Arautegi honen 5.Artikuluaren a) ataleko baldintzak betetzeko eran.
- e) Bildotsen kanalen klasifikazioa egiteko Kualifikatuta dagoen pertsona bat egon behar da eta bera arduratuko da aurkezten diren bildotsak zuzen klasifikatu eta kalifikatzen.
- f) Marka honetarako ontzat hartuko dira, Arautegi honen 5. Artikuluko baldintzak betetzen dituzten kanalak.
- g) Ontzat ematen diren kanalen identifikazioa, momentu bakoitzean Fundacion Kalitatea Fundazioak ezartzen duen eran egin behar da.

11. Artikulua.- Arautegi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kanalen identifikazioa eta kanalen despiezearena (azken hau egingo balitz), Fundacion Kalitatea Fundazioak ezarritakoaren arabera egin behar da, baina, edonola ere, kanalaren 4 laurdenak identifikatu behar dira.

12. Artikulua.- Fundacion Kalitatea Fundazioak “Euskal Bildotsa” bereizgarria agertzen den etiketen eta ontzien kontrola eramango du, euren erabilera zuzena dela ziurtatzeko, imitaziorik egon ez dadin eta beren idazkera edo aurkezteko erak, kalterik egin ez diezaion berme markari eta bere helburuen kontra ere joan ez dadin.

V. ATALA,- MERKATURATZEA

13. Artikulua.- “Euskal Bildotsa” bereizgarriarekin identifikatutako kanalak ondoren adierazten moduan merkatura daitezke:

- a) Ekoizleak zuzenean salmenta puntura.
- b) Ekoizleak merkaturatzaileari, horretarako, azken hau, erregistratuta egon behar da.
- c) Despieze txikian, salmenta unitateetan: horretarako, gela, baimenduta egon behar da eta Fundacion Kalitatea Fundazioak erregistroei dagokienez, despiezeari, ontziratzeari eta emaitza diren produktuen identifikazioari dagokienez ezartzen duena bete behar dute.

VI. ATALA,- KALITATEAREN KONTROLA

14. Artikulua.- Fundación Kalitatea Fundazioak egoki edo beharrezko ikusten dituen kontrol sistemak ezarriko ditu produkzioari dagokionez, hiltzea, sailkapena, identifikazioa, kontserbazioa eta biltegiatzeari dagokienez, zein garraioa, ontziratzea, manipulazioa eta merkaturatzeari dagokienez. Ezartzen den kontrol sistemaren helbura da, “Euskal Bildotsa” bereizgarriarekin egiaztatzen den produktuak Arautegi honetan eta aplikagarria den gainontzeko arautegian ezarrita dagoena betetze duela ziurtatzea.

15. Artikulua.- Produktuaren trazagarritasunaren kontrola eta kalitatearen kontrola lehenbizi hiltze zentroi dagokie, eta bestela, merkaturatzaileei. Hauek, euren lan prozesuan, egokiak eta nahikoak diren lan eta kontrol sistema ezarri behar dute, Fundazioak onartutakoa eta Arautegi honetan zehaztutakoa betetzea ahalbidetzen diena.

16. Artikulua.- “Euskal Bildotsa”-ren erregistroetan izena emandako eragile guztiek onartu egingo dute baimendutako ikuskatzaileek euren kontrolak egitea; gainera, euren laguntza eskainiko dute aipatutako kontrolak egitera joaten direnean, ekoizpenarekin, manipulazioarekin edota merkaturatzearen inguruko informazioa eskatzen zaienean berau emanaz.

VII. ATALA,- ERREGISTROAK

17. Artikulua- Fundación Kalitatea Fundazioak honako erregistroak izango ditu:

- a) “Eusko Bildotsa” lortzeko izena emandako Ekoizleen erregistroak edo Ekoizleen Entitateenak (bertan izena emandako ekoizleekin).
- b) “Euskal Bildotsa” den produktua hiltzeko, aukeraketa egiteko eta identifikatzeko baimendutako Hiltegien erregistroak.
- d) Baimendutako Merkaturatzaileen erregistroa.
- e) Baimendutako Zatitze Gelen erregistroa.

VIII. ATALA,- NEURRI ZUZENTZAILEAK

18. Artikulua.- Izena emandako eragileek Arautegi honetan jasotakoa betetzen ez badute, Fundación Kalitatea Fundazioak zigortu egin ditzake, jakinarazpenak bidaliz, edota marka hau erabiltzeko baimena behin behinekoz edo behin betiko kenduz.